



HAIZEA NUÑEZ
ABOKATUA

Zuriketa moreari talka

2018ko otsailaren 2an kazkabarragor jotzen ari zen Donostiako kaletan. Euskal Herriko Mugimendu Feministak martxoaren 8ko greba feministaren deialdia egiteko agerraldi publikoa abian. Garai bateko Tabakalera-ko zigarrogeileen borrokari aitortza zen hura: dozenaka emakumek*, hedabideak lekuko, espazio publikoa okupatu genuen eta, berehala, algara oztopatzeko nahian, kultura garaikideen nazioarteko zentroko segurtasunekoak eta arduradun batzuk hurbildu ziren baimenik gabeko plaza hartze hura onartezina zelakoan. Ez zuten lortu, ordea, indar kolektibo hori gelditzen, ezta ahots propioarekin esateko genuena isiltzen ere. Gure genealogia feministen leku estrategiko batetik, autotestimu kolektiborako ekintza gozagarrian, zaintza lanetan, enpleguan, ikasle eremuan zein kontsumoan greba egingo genuela adierazi genuen. Iaz, planto eta historia egin genuen.

2019ko urtarrilaren 16an negua udaberri-ritu zitzaigun eta, kontraesanak kontraesan, Gasteizko Talka gune feministaren atarian eguzkiak elurrari aurea hartuta ziola elkarri besarkatuta ospatu genuen. Hitzez hitz, heteropatriarkatu kapitalistari planto egingo geniola publikoki aipatzera gindoazen eta zapaltzen gaituen sistematik etekina ateratzen jarraitu

nahi dutenak orduantxe ageri ziren. Prenstakoak bertaratu aitzin, Gasteizko Udal-tzainaren konplizitatearekin, Iberdrolak argindarra moztu zion emakume*, bolle-
ra eta transen konplizitateak bi hilabete lehenago eta erabilera komunitariorako askatutako espazio feministari.

Geroztik eta greba feminista egu-
nera arte, puntu more gehien lortzeko norgehiagoka aritu dira ordezkari po-
litiko eta patronalekoak. Pribilegioekin amaitzeko eta zapalkuntza guztietatik askatzeko bidea jorratzeko egin ditugun exijentzia politiko, sozial eta ekonomi-
koei erantzun gabe, intimitatean gure programari muzin eginez eta errepre-
sio dosiak selektiboki aginduz: talkaren desalojoa, atxilotetak, borra kolpeak, portaletan sartzeak eta hirurogei identi-
fikaziotik gora.

Aurten hogeita zortzi neurri lortzeko helburuarekin egin genuen greba femi-
nista. Feministok badakigu nondik gato-
zen eta nora goazen. Datozen hilabeteetan gure papera jokatzera ausartuko gara: zu-
riketa moreari talkaz, bizitzak erdigunean jartzeko baldintza materialak erdietsiz, eskuinaren oldarraldiaren aurrean auto-
defentsa feminista antolatuz, behetik go-
rako herri eraikuntzaz, eta, aurreko guztia egiten ez badugu alperrik izango dela ja-
kinda, arduraz bozkatzuz. ●



CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA

Insomnioaz

Gauza jakina da: insomnioduna naiz, eta aholku guztien kontra, sakelako telefonoa izaten dut mesanotxean. Alberto Pradilla eta Elizabeth Macklinen desorduetako -ni-
retako, ez haiendako- postekin ez ba-
naiz lokartzen, bada TL bat hutsezina dela: Jon Iñarriturena. Izugarria da bere etorria eta izugarria -oraingoan lite-
ralki- gizon honek sorrarazten dituen maitasun, miresmen, desira eta seduk-
zio mezuak, ezkondata ote dagoen gal-
detzeraino -eta berak erantzun, hori ere esan beharra dago-. Pello Urzelaik beti esan ohi du hauteskundeak ez di-

rela Twitter bidez irabazten, eta nago arrazoi duela horretan. Hauteskunde egunerako berdin jarrituz gero, ordu-
rako aise izango ditu milaka jarraitzaile gehiago, baina susmoa daukat propor-
tzioan askoz gehiago direla jarraitzaile katalanak -edo estatukoak, nahi badu-
zu-. Eta, horiek ez diote bozik emanen. Ez dut ukatuko bizkaitarren dotorezia eta erakargarritasuna; areago, bat egi-
ten dut hein handi batean, baina arris-
kua ikusten diot horrelako soslaia du-
tenei: gehiago daudela Euskal Herritik kanpokoari adi, eta berdin gisan, han-
goak direla jarraitzen dutenak. ●